20 01
GAINTXURIZKETAKO AGINTE POSTUA

Guda Zibila 1939. urtean amaitu ondoren, Armada Pirinioak defendatzeko gotorleku bat eraikitzen hasi zen hormigoizko bunkerretan (edo habiak) oinarrituta. Hari, Gipuzkoan eta Nafarroan, “Vallespín” Gotorlekuaren izen ofiziala ipini zitzaion, aipatutako lurraldean diseinatu zuen ingeniari militarraren abizena zelako.

Bunkerrak elkarrekin lotuta zeuden, hirunaka, lurpeko galerien bidez. Multzo horietako batzuek “Defentsa Gune” bat osatzen zuten. Horietako batek Gaintxurizketa gain estrategikoa okupatzen zuen (Irunetik 5 kilometrora), non Madril-Irun trenbidea eta errepidea igarotzen baitzen.

Gotorleku hau ez zen inoiz amaitu, baina bere obrak beste gotorleku baterako aprobetxatu ziren, “Pirinioetako defentsa gunea” izenekoa. Bertan, bunkerrak ez zeuden elkarrekin lotuta lurpeko galerien bidez.

Defentsa gune bakoitzak aginte postu bat zeukan eta, Gaintxurizketaren kasuan, bertara sartzeko lurpeko galeria luze batetik igaro behar zen. Azken hura, hein berean, hainbat bunker multzorekin lotuta zegoen.

GALERIA OROKORRA.

Galeria orokorra izenekoaren bitartez aginte postuan eta hainbat bunkerretan sar daiteke.

Galeria orokorraren sarrerak (C) meatze-aho itxura dauka, etsaiaren erasotik babestuta, Gaintzurizketa errekaren ekialdeko isurialdean, Oiartzun ibaiaren adarra. Ortoargazkiaren 1. zenbakiari dagokio.

Planta lerrozuzena dauka, nahiz eta zenbait bihurgune eduki. Bere luzera 311,3 metrokoa da eta bere argia (edo zabalera) defentsa guneko galeria guztienenen handiena da: 2 m. Altuera ere 2 metrokoa da.

Indusketa –bai horma-bularrak eta bai bobedak eta lurra- hormigoiez estalita dago, dirudienez armatu gabe, eta alboetan zenbait bular-arte ditu, iragazten den ura drainatzeko.

Galeria orokorraren ibilbideak oso malda txikia dauka. Hura, erdialdean gutxi gorabehera, aldatu egiten da, iragazi daitekeen ura drainatu ahal izateko. Sarrerako kota erlatiboa “0” dela kontuan hartzen badugu, bokalearena + 4,05 izango da eta obraren erdigunekoa, berriz, 5,90 m. Proiektuaren arabera, halaber, indusketaren bidez, erdigunean, putz bertikal bat egin zen, mendiko azaleratik, eta bi tunel horizontal eraiki ziren, sakonera egokia iristerakoan.

Galeria orokorra amaitzen da mando postura daraman galeriaren bidegurutzean (“D”), eta aurrera jarraitzen du bunker desberdinekin bat eginez.

AGINTE POSTUA.

Aginte postura daraman galeriak (D-E) 17 m luzera eta 2 m zabalera zein altuera dauzka. Horma-bularrek teorikoki 75 cm lodiera dute, eta bobedan 50 cmra txikitu egiten dira, nahiz eta ziur aski hormigoiaren lodiera txikiagoa izan.

Aginte postuak H itxurako planta bat dauka. Bertako erdialdea sarrera galeriaren jarraipena da, eta haren alde banatan, guztira, 2 m zabalera eta 12 m luzera duten lau ganga-formako lau gela eratzen dira, dagozkien alboetako bular-arteekin ura lurrera drainatzeko. Haren funtzionamendua barrutiei malda egokia ipintzean datza, ura errazago atera ahal izateko.

Defentsa gune horren zati bat suntsitu egin zen uneko GI-636 errepidearen bidea aldatzerakoan. Hala ere, bai Galeria orokorra eta bai Aginte Postua, gaur egun, egoera ezin hobean kontserbatzen dira.


Gehiago jakiteko: Sáez García Juan Antonio. - La fortificación Vallespín. Donostia : INGEBA, 2010.




. Aginte Postura eta hainbat habiatara sartzeko galeria orokorra



Aginte Postua. Ezkerraldean eta eskuinean 12 m luzerako geletarako sarrerak



Ortoargazkia 1945-46, amerikar hegaldia, A segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. UTM 30N ETRS89 // X: 592977 m // Y: 4798264 m. 1: 1. zenbakidun Gaintxurizketa (Vallespin Gotorlekua, 1939-1940) Defentsa guneko aginte postura daraman galeria orokorraren ahoari dagokion lur mugimendua. Horrez gain, adierazi dira eraikitzen ari diren Pirinioetako Defentsa Guneko bi bunker (1946): 2. Metrailadore baterako 244-08. obra eta 3: fusil metrailadore baterako 244-32 obra.



1. zenbakidun (Gaintxurizketa) Defentsa Guneko Aginte Postuaren planoa, Vallespin Gotorlekuaren barruan (1939-1940), bere sarrera galeriarekin (CD) eta behin-behineko obra galeriarekin (BD). C sarbidearen inguru mugitutako lurra ortoargazkian ikusten dena da, sarrera bidea bezala.

Pirinioetako Defentsa Gunean (1946) eraikuntza hau aprobetxatu zuten 244 Erresistentzia Zentroaren barruko bi sekzio babesteko.